

**I. XEDAPEN OROKORRAK****ESTATUKO BURUZAGITZA**

**2313** *1/2021 Lege Organikoa, otsailaren 15ekoa, Murtziako Eskualdeko Autonomia Estatutuaren ekainaren 9ko 4/1982 Lege Organikoa erreformatzekoa.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege organiko hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

**HITZAURREA**

Herritarrek sistema politikoan eta erakundeetan duten konfiantza-krisi luzea, nahiz eta gure herrialde osoak eta, beraz, Murtziako eskualdeak ere bizi duen krisi ekonomiko luzea dela-eta zuzenean informatuta egon, larriagotu egin da ustelkeria politikoarekin zerikusia duten hainbat eta hainbat gairen ondorioz; izan ere, ustelkeria politikoak kolokan jarri du politikaren, erakundeen eta zerbitzu publikoa ematen duten pertsonen sinesgarritasuna. Hori dela eta, zerbait egin beharra daukagu, lehenbailehen gainera, egoera hau are gehiago okertu baino lehen.

Gauzak honela, eta herritarrei irtenbide ukigarriak eskaintze aldera, Autonomia Estatutuaren erreforma partzial hau beharrezkoa da, gure funtsezko arautegitik adierazpen irmo bat egin dadin, horrela behar den moduan erantzun nahi baitiogu, batetik, herritarrek demokraziaren garbitasunari buruz duten kezkarik, eta bestetik, gaur egun eta aipatutako arrazoiengatik gizarteak pribilegiotzat eta ez eskubidetzat hartzen dituen egoera jakin batzuk ezabatzeari.

Izan ere, bai Konstituzioan, bai Estatutuan, zenbait figura juridiko arautzen dira, funtzio publiko jakin batzuk behar bezala betetzen direla bermatzeko, hala nola bortxaezintasuna, immunitatea eta jurisdikzio-forua. Figura juridiko horiek XIV. mendekoak dira, eta, haien bidez, parlamentarien lana aldarrikatu zen eta erraztasunak eman ziren parlamentuko eztabaidan askatasunez hitz egin zezaten.

Bada, egia da parlamentariak babesteko figura horiek sorrarazi zituen oinarriak zentzua bazuela parlamentuko eztabaiden garapena hobetzeko, eta egia da, baita ere, figura horien bilakaerak gehiegizko babesa ekarri duela, botere betearazleko kideak ere babestu ditu eta. Babes horrek nabarmen gainditu du adierazpen-askatasunaren babesaren hasierako kontzeptua, benetako estatus berezi bat izatera pasatu baita, foru judizial berezi bat izatera hain zuzen, gure Zuzenbide Estatuan herritar batek ere ez duena, halakorik aurreikusitako ez bazaio behintzat.

Ez dago tarterik, ezta arrazoirik ere, Murtziako Eskualdeko Batzarreko diputatuen eta Gobernu Kontseiluko kideen aforamendu bereziaren figurari eusteko; izan ere, parlamentuan eta politikan duten adierazpen-askatasunaren esparruan babestuta jarraitu behar badute ere, ez dute jurisdikzio arruntetik kanpo jarraitu behar, parlamentuko jarduera normaletik kanpoko edozein jurisdikzio-eremutako edozein prozedura judizialean zuzenean eragiten dieten gaitan.

Aldaketa hori berehalaxe egin behar da, egoerak hala eskatzen baitu, horrela erantzun nahi zaie-eta demokrazian garbi eta garden jokatzeko egindako gizarte-eskaerei, arau honek eskatzen duen iraunkortasun-asmoa duelarik.

**Artikulu bakarra.** *Murtziako Eskualdeko Autonomia Estatutuaren ekainaren 9ko 4/1982 Lege Organikoa aldatzea.*

Bat. Aldatu egiten da 25. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«25. artikulua.

Eskualdeko diputatuak:

1. Ez daude lotuta inolako aginduzko manuri.
2. Beren agintaldia amaitu ondoren ere bortxaezinak izango dira beren eginkizunak betetzean emandako boto eta iritziengatik, eta, ondorio horietarako, beren izendapen-ekitalditik aurrera joko dira onartutzat boto eta iritzi horiek.
3. Galderak, interpelazioak eta mozioak egiteko eskubidea dute, erregelamenduak ezarritakoaren arabera. Halaber, agintari publikoetatik informazioa eskuratzeko eskubidea dute, beren eginkizunak betetzeko behar dutena, salbu eta funtzionarioak legez sekretupean gorde behar dituen jarduketak edo gaiak direnean.»

Bi. Aldatu egiten da 33. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«33. artikulua.

1. Gobernu Kontseiluak politikoki erantzuten du, modu solidarioan, Batzarraren aurrean, ezertan galarazi gabe bertako kide bakoitzak bere kudeaketa dela-eta duen zuzeneko erantzukizuna.

Estatutuan aurreikusten ez denerako, Batzarraren lege batek, kideen gehiengoaren aldeko botoarekin onartzen denak, arautuko du erantzukizun hori, bai eta oro har bi organoen arteko harremanak ere.

2. Gobernu Kontseiluak bere presidentearen kasu berberetan utziko du kargua.

3. Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta gero, Gobernu Kontseiluko presidentek programa bati edo politika orokorreko adierazpen bati buruzko konfiantza-arazoa aurkeztu ahal izango dio Eskualdeko Batzarrari. Konfiantza lortu dela ulertuko da, baldin eta eskualdeko diputatuen gehiengo soilak haren aldeko botoa ematen badu.

Eskualdeko Batzarrak konfiantza ematen ez badu, Gobernu Kontseiluko presidentek dimisioa aurkeztuko du Eskualdeko Batzarrean bertan, eta Batzarreko presidentek, gehienez ere hamabost eguneko epean, osoko bilkura baterako deialdia egingo du Erkidegoko presidente berria hautatzeko, Estatutu honen hogeita hamaikagarren artikuluan ezarritako prozeduraren arabera, baina horrek ez du inola ere ekarriko Eskualdeko Batzarra desegitea.

4. Batzarrak erantzukizun politikoa eska diezaieke Gobernu Kontseiluari eta haren presidenteari; horretarako, zentsura-mozioa aurkeztu behar da eta gehiengo osoak onartu behar du.

Zentsura-mozioa eskualdeko diputatuen ehuneko hamabostak gutxienez proposatu beharko du, eta mozio horretan jaso beharko da Gobernu Kontseiluko presidentetzarako hautagai baten izena. Aurkeztu eta bost egunera bozkatu ahal izango da zentsura-mozioa. Epe horretako lehenengo bi egunetan, mozio alternatiboak aurkeztu ahal izango dira. Zentsura-mozioa onartzen ez bada, sinatzaileek ere ezin izango dute zentsura-mozio gehiagorik aurkeztu, urtebeteko epean, legealdi berean.

5. Gobernu Kontseiluko presidentek ezin izango du konfiantza-arazoa planteatu, zentsura-mozio bat izapidetzen den bitartean.

6. Bertan behera gelditu den Gobernuak jardunean jarraituko du Gobernu berria karguaz jabetu arte.»

Azken xedapena.

Autonomia Estatutuaren erreforma hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Beraz,  
Lege organiko hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madrilen, 2021eko otsailaren 15ean.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN